

Espainiako Estatuko telebistagintzaren generoak ziklo analogikoaren amaieran

Los géneros programativos en la oferta de la televisión en España al final de la era analógica

Spanish Television Genre Offer at The End of The Analogue Era

Edorta Arana¹

zer

Vol. 18 - Núm. 35
ISSN: 1137-1102
pp. 97-191
2013

Recibido el 9 de enero de 2012, aceptado el 1 de junio de 2013.

Laburpena

2010eko apirilean burutu zen Estatu espainiarrean itzalaldi analogikoa eta bukaera eman zitzaion bost hamarkada pasatxoaz luzatu den telebista sistema analogikoari. Amaitu den aroaren balantzea egin eta etorkizuneko telebistarekin alderatu ahal izateko kontraste elementuak agerian jarri nahi dira artikuluko honen bidez.

Horretarako, 1995 eta 2010 urte bitarteko epea aukeratu da telebista analogikoak bere bilakaeran erabili dituen generoak erreparatuz. Izan ere, neurri handi batean, eskaintzak berak adierazten du telebista beraren izaera.

Estatu zein komunitate autonomo mailan pantailaratzen diren kanal publiko eta pribatu guztien programazioan arakatu da, emisio analogikoaren azken hamasei urteen bilakaera eta beraien artean ikus daitezkeen desberdintasunak azaleratzeko. Ibilbide honetan, Kantar Mediak burutzen dituen ikerketen datuak hartu dira hausnarketarako oinarri modura.

Gako-hitzak: telebista, programazioa, generoak, eskaintza, trantsizioa.

Resumen

En abril de 2010 se produjo en el Estado español el apagón analógico, lo que marcó el final de un sistema televisivo que se había extendido durante cinco décadas. Este artículo hará un recorrido recapitulatorio de la fase final, aquella comprendida entre los años 1995 y 2010, y analizar las bases de su oferta programativa en televisión, poniendo así las bases para posteriores estudios comparativos sobre el peso de los distintos géneros en la transición entre las eras analógica y digital.

¹ Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, edorta.arana@ehu.es

Sin duda, el análisis de la oferta televisiva es uno de los elementos clave para entender la propia existencia del medio y el rol que juega en nuestra sociedad. Este artículo dibuja el panorama del medio antes del inicio de las emisiones digitales.

Para ello hemos utilizado los datos que facilita Kantar Media en sus anuarios y nos hemos fijado en los 24 canales de televisión que emiten para la totalidad del Estado español o para aquellas comunidades autónomas que cuentan con televisiones propias, extrayendo las similitudes y diferencias en dichas emisiones y su evolución en el tiempo, reflexiones que, por otra parte, esbozan un medio en pleno cambio.

Palabras clave: televisión, programación, géneros, oferta, transición.

Abstract

By April 2010 the analogue television signal in Spain was switched off and that marked the end of a five decade television system. This article will make a recapitulation of that analogue TV program offer and put the basis for future researches that compare the programming patterns of both television eras.

This analysis, covering the period between 1995 and 2010, will serve to know more in depth the genre offer of the analogue television final years. In fact, to a large extent, the program offer is one of the key elements to explain the very existence of the medium and its social role.

We have studied the 24 different TV channels transmitting for the whole country and for the autonomous communities with local TV stations and list the differences and similarities in the way they build their offer. In doing so we have based our reflections on the data provided by Kantar Media and its yearly publications.

Keywords: television, programming, genres, offer, transition.

0. Sarrera

Espainiako estatuako telebistagintzaren aro analogikoa aztertzerakoan asko dira kontuan hartu daitezkeen ikuspuntuak, besteak beste kanalen kudeaketa sistema, jabetza, bilakaera teknologikoa, eskaintza, audientzia ala eragin soziala. Artikulu honetan horietariko batean oinarritu gara: kanal desberdinek erabiltzen dituzten generoak eta horietariko bakoitzak zenbaterainoko pisua daukan eskaintza osatzerakoan.

Programaz programako azterketa zehatzegia baino baliagarriagoa iruditu zaigu generoan oinarritutakoa, elementu garrantzitsuenak eta joerak detektatzeko baliagarriagoa dela sinetsita. Kasuko azterketa baino, norabidea nagusienak zirriborratzea da lan honen helburua.

Horretarako, Kantar Mediak 1995etik aurrera erabiltzen duen sailkapena eta plazaratzen dituen datuak hartu eta Espainiako estatuan ari diren kanal publikoak eta pribatuak, emisio eremu orokorrekoak zein autonomikoak miatu ditugu.

Aztergai dugun urte multzoa zabala da eta 1995-2010 bitartean kokatzen dira telebistagintzaren eremuan eman diren hainbat gertaera nagusi. Ordurako lanean ari ziren lehen telebista pribatuak eta satellite eta kable bidezkoekin aberastekoa zen panorama, bigarren kanal pribatuen sorta etorri zenean.

Baina zalantzarik gabe, ikerketa honen zergatia eta denbora kokapena telebista seinalearen digitalizazioak eman dio. 2010erako itzali zen sistema analogikoa eta kome-nigarria iruditu zaigu aro analogikoaren balantze moduko bat egitea, bereziki azken hamarkada t'erdia pasatxoak kontuan hartuz. Azken hamasei urte horietan gertatutakoa konparagarri izan dadin digitalizazioaren osteko telebistak egiten duen bidearekin.

1. Eskaintzaren bilakaera

Telebistagintzaren ibilbide luzea definitu duten faktoreen artean daude hedabidearen arauketa legala eta beraz kanalen jabetza eta kudeaketa, garapen teknologikoa, kontsumitzaileen/erabiltzaileen jarrerak eta pertzepzioak eta, nola ez, eskaini dituen edukiak. Azken honetan arreta jarritzeko gara ondoko pasarteetan. Izan ere, pantailaratzen diren programak eta hauek sailkatzeko erabiltzen diren generoen bidez egingo dugu telebistagintzaren eboluzioaren azterketa eta, bereziki, digitalizazioaren aurreko azken hamasei urteetan murgilduz.

1956an, diktadurapean jaio zen TVE eta bi hamarkada luzez era hartara aritu zen, Espainiako estaturako telebistagintza sistema erabat baldintzatuz. Monopolioa, estatuaren ikuspegi zentralista, gaztelera hutsean emititzea eta medioa bera legitimazio eta atxikimendu politikoa lortzeko tresna gisa erabilia izateak asko markatu zuen medioaren izaera eta egiteko modua (Contreras eta Palacio, 2001).

Kanal bakarrekoa 1966an modu erregularrean TVE2k emititzeari ekin zion arte, ideologikoki agintean zeudenen menpekoa izan zen zeharo, European garatzen ari zen zerbitzu publikoaren *Ó* aplikazio *sui generis*a gauzatuz, baina, paradogikoki, beste toki batzuetan zegoen publizitate eta audientzia lehia gogorretik aske bizi zena. Garai hartako telebista zuri-beltzean, hargailu kopuru mugatuaz eta familian kontsumitua zen (Palacio, 2001).

Paleotelebista deitu izan den sistema hura (Eco, 1986), monopolio publiko gisa kudeatuta zegoen eta orotariko programazio eredu jarraituz aireratzen zen. Modu

horretara, genero desberdineko edukiak, bata bestearen atzetik, *collage* gisako bat osatuz eta ahalik eta audientzia zabalena eta anitzena lortzea helburua zuen.

Programatzaileak bere lana betetzeko informazio askorik ez zuenez, intuizioz eta jendearen ordutegiak, ohiturak eta gustuei buruzko pertzepzio pertsonaletan oinarrituta diseinatzen zuen programazio-taula. Kanal pareko telebista panorama hartan, ahalik eta jende gehienengana heltzea zen xedea, beti ere programa eskaintza zabala eta heterogeneoa transmitituz (Tubella, Taberner eta Dwyer, 2008).

Hirurogeita hamargarren amaieran, oraindik ere, emisio-orduak oso mugatuak ziren (egunean 10 bat lehen kanalean eta 5 bigarreanean) eta programatzailearen zereginak bereziki *prime-timen* eta bazkalosteko albistegiaren inguruetara mugatzen ziren.

Espainiako estatuko telebistagintzaren bilakaeran, Euskal Telebistak jarri zuen beste mugarri garrantzitsu bat 1982an. Lehen telebista autonomikoaren sorrerak estatua-ren monopolioa hautsi eta beste hainbat tokitan jarraipena izan zuen, besteak beste Katalunian, Galizian edo Andaluzian. Guztira 12 dira gaur egun lanean ari direnak, hauetariko lau gaztelera ez den hizkuntzatan arituz. Urteetan aurrera egin ahala, kanal horietatik gehienek satellite bidezko emisioak ere garatu dituzte eta Estatuko beste toki batzuetara, Europara eta Ameriketara igortzen dituzte beraien seinaleak.

Laurogeigarren hamarkadan bestalde, Espainiako estatuko hainbat herri eta hiritan tokian tokio telebista kanalak sortu ziren, baita Euskal Herrian ere (Arana, Azpillaga eta Narbaiza, 2007). Emisio-eremu txikiko, sarritan mugimendu sozialetara lotuak eta gehienetan baliabide mugatuko kanal hauen ekoizpen maila baxua zen eta oso kasu gutxitan lortu zuten bideragarritasun ekonomikoaren muga gainditzea. Horietariko batzuk beste hedabide handiagoen espantsio politikaren ondorioz sortu zirenez ez zeukaten beharrezkoa zen lan autonomia. Hala ere, hainbat urtez gertuko telebistagintzaren ilusioa pizturik mantendu zuten eta kanal handiek bazterrean uzten zituzten informazio eta edukiak jorratzeko aproposagoak suertatu ziren. 2000tik aurrera legezkatze prozedurak martxan jarri zirenerako tokiko ikus-entzunezkoen panorama erabat desitxuratuta zegoen eta lortzen zuten audientzia baxuekin publizitate euskarri gisa indargabetuta zeuden. Oraindik ere hauetariko kanal asko mantentzen badira ere, kudeaketa zentralizatu eta katean emititzeko joera orokortu da, krisiak oso gogor astindu duen sektore honetan. Itxura guztien arabera, eta salbuespenak salbuespen, badirudi gertuko telebista sistema sendo eta artikulatuaren aukera galdu dela (Badillo, 2003 eta Guimerá, 2007).

Hamarkada beraren amaieran eta 90ekoaren hasieran, eta Europako beste herrialde batzuetan baino beranduago, jaio ziren Espainiako estatuko lehen telebista pribatuak. Ordura arteko monopolio publikoaren telebista sistema hankaz gora jarritz, irekian emititzen hasi ziren Telecinco eta Antena 3 eta nagusiki ordainpeko erudian Canal +.

Neotelebistagintzaren abiapuntua izan zen edo, beste era batera esanda, telebista kanal publikoak zein pribatuak eremu berean lehian arituko zirenekoa, merkatu konkurrentziala. Kanal kopurua biderkatu egin zen eta lasterketa zoroan murgildu ziren kanal publikoak eta pribatuak audientzia kuota zatirik handiena eskuratu guran, horretarako arrakasta epe laburrean eskaini zitzaizketen edukiak eta formatuak erabiliz.

Panorama honetan, audientzia neurketaren eta bereziki audimetriaren garrantziaz jabetu ziren iragarleak, publizitate agentziak eta programatzaileak. Programa

eskaintzaren arrakasta eta beraz telebista kanal desberdinek salgai jartzen zituzten publizitate-tarteen errentagarritasuna zenbatzeko orduan ezinbestekoa zen audimetroaren epaia.

Saso hartan, telebista kanalen programazioa egun osora zabaldu zen, gora egin zuen etxebizitza bakoitzeko hargailu kopuruak eta urrutiko agintearen erabilerak baldintzatzen hasi zen ez bakarrik ikusteko era baizik eta programak egiteko modua ere.

Kanal kopurua biderkatua zegoen testuinguruan, programatzaileek nahikoa lan zeukaten beraien eskaintzari nortasun propioa eta definitua ematen telebista merkatu saturatu hartan jendea erakarri eta ahalik eta denbora gehien beraienean sintonizatuta mantendu zedin (Geca, 2011-2004).

Audimetroaren begiradapean, merkatuaren logika nagusituz joan zen, audientzia lehia orokortu eta kanal publiko eta pribatuaren arteko desberdintasunak urtu.

Aldaketa orokor hau ez zen kanal guztietan aldi eta neurri berean eman baina zalantzarik ez dago ikuskizunerako joera, audientzia erakartzeko borroka, programa eta genero eskaintzaren antzekotasuna eta programazio-taulak diseinatzeko ikuspegi miopikoa orokortu zirela kanal guztietan, pribatuak zein publikoak izan (Prado, Huertas eta Perona, 1992).

Paradigma berriko telebistagintzaren oinarriak jarriak ziren eta, hurrengo atalean ikusiko dugunez, bere horretan iraun du sistema analogikoa bizirik egon den bitartean (Alvarez Monzoncillo, 2011).

Pasa den mendearen azken hamarkadak gainera, satellite zein kable bidezko telebistaren sozializazioa ekarri zuen (IPT Network, 2009-2012). Lurreko seinale analogikoari beste transmisio sistema horietatik etorritako kanalak gehitu behar zitzaizkion, batzuk orotarikoak eta gehiago tematikoak. Badirudi teknologikoki, ekonomikoki eta sozialki merkatua prest zegoela telebista eskaintza segmentatua kudeatzeko; *broadcasting*etik *narrowcasting*erako jauzia egiteko heldua nahiko (Roel, 2008). Baina, oparotasun horrekin kontraesankorra badirudi ere, telebistagintza pribatuaren lehen urte haietan sumatzen ziren joerak kronifikatu egin dira eta, edozein izanik ere transmisio sistema, presente aurkitzen dira ziklo analogikoa bizirik egon den bitartean. Eta joera guztien gainetik bat: kanal kopurua eta aniztasuna ez daude lotuta.

Sateliteari dagokionez, deigarria da Europa osoan zehar ikus daitezkeen kanalen artean zenbaterainokoa den orotariko eskaintza daukatenak (%61) eta beraz balizko espezializazioa eta dibertsitatea kanal tematikoen esku geratzen dela soil soilik (Arana, 2011). Digital + satellite plataformaren kanaletatik lautik hiru tematikoak dira eta horien artean nagusi dira Fikzioa, Informazioa eta Kirola lehengai gisa daukatenak.

Antzerakoa gertatzen zaio kableari. Oinarrizko paketeetako kanalen artean %30a orotarikoak dira eta gainontzekoen artean nagusi dira Fikzioa eta Informazioa eskaintzen dutenak (Prado *et al.*, 2009).

Ikertzaile horien esanetan, eta beti ere Euromonitorrek eta Usamonitorrek erabiltzen duten genero sailkapena eta Kantar Mediarena berdin-berdinak ez direla jakinik, mende berriaren hasierako telebista eskaintzan joera hauek sumatzen dira:

- Genero gutxi batzuk baino ez dira erabiltzen telebista desberdinetako programazio-terruak osatzerakoan. Kanal kopurua biderkatu egin den arren ez da maila berean garatu eduki eta formatu berritzaileak ekoizteko egitura produktiboa. Orotariko kanaletako makrogenero berberak erabiltzen dira telebistagintza tematikoaren eskaintza eraikitzeke. Kanal kopurua handitzeak ez du aniztasuna ekarri.
- Europan bezala AEBn, merkatuaren legeak homogeneousatu egin du erabat eskaintza eta 90. hamarkadan egon zitezkeen tokian-tokiko berezitasunak desagertarazi ditu. Telebista pribatuaren antzinakotasunak (80. ala 90. hamarkadetan birrarratu izana) ez du alde nabarmenik erakusten, herrialde batetik bestera. Ezta Europar iparraldeko eta hegoaldeko estatuen telebista tradizio desberdinekoetan ere.
- Datu guztien arabera, Estatu Batuetako erreferentzialtasuna telebista programatzeko orduan handia da eta hark erakutsiko du Europan nolakoa izango den etorkizunean. Beraz, plataforma anitzeko telebistagintzan iparramerikak duen eskarmentuari jarraipena egitea komeni da.
- Orohar, telebistagintzak ikuskizunerako hautua egin du eta programa guztietan txertatu da, generoen arteko mugak ezabatuz.

Espainiako estatuaren kasuan zehazki, 2005aren bueltan, kanal pribatuen bigarren sortaldia etorri zen eta ordukoak dira Cuatro (lehendik emititzen zuen Canal +en oinorde gisa) eta La Sexta izenekoak. Ordurako kanal saturazio handia bazegoen ere, etorri berriek beraien-tzako leku bat egiten saiatu dira, bereziki gogorra izan den krisi ekonomikoaren garaian.

Itzalaldi analogikoa programatua zegoen 2010eko udaberria baino lehen orotariko telebistek zeukaten eskaintza aztertzen ari garen honetatik kanpo geratzen bada ere, aipatuko dugu 2011eko azkenetan Estatu espainiarreko kanal pribatuak kudeatzen dituzten enpresen arteko bereganaketak izan direla eta, horien ondorioz, Mediaset da Telecincin eta Cuatroren jabe eta Grupo Antena 3 izen bereko telebista eta La Sextarena.

Krisiak areagotu baino ez du egin berez bideragarritasun ekonomiko arazo larriak zituen telebista merkatu espainiarra (eremu pribatu zein publikoan, ikus bestela Valentziako Canal 9ren itxiera) eta publizitate fakturazio beherakada itzelak azken bultzada baino ez da izan (Infodex, 2011).

Agortu da beraz telebistagintza analogikoaren zikloa eta ikusteke dago etorkizunak ekarriko duena. Horregatik interesgarria da amaitu berria den telebista sistemaren balantzea egitea eta digitalizaziora begira abiapuntua zein den ondo jakitea.

Etengabe eta egoera berrietara astiro moldatzen ikasi izan duen medioa da telebista. Eskaintza murriztetik kanal oparotasunera salto egin du eta analogikotik digitalera pasatzerakoan egingo dituen pausuak dira ondo aztertu behar direnak. Baita, prozesu horietan, kontuan hartzekoak dira garapen teknologikoak eta horien konbergentziak norainoko jokoan ematen duten, eta guztiaren gainetik, jendeak nola barneratzen dituen berrikuntza teknologiko horiek. Telebistaren itzaera bera, neurri handi batean, erabiltzaileen esku baitago.

Nondik norako bidea egingo duen ez dakigun arren, garbi dago abiapuntuko egoera zein den ondo zehaztea komeni dela. Telebista analogikoak iraun duen bitartean eginkoa aztertu eta hortik aurrera etorriko diren aldaketak neurtzeko tresna izan dadin.

1. Taula. Espainiako estatuko kanal autonomiko analogikoak: publikoak eta pribatuak.

Erkidego autonomoa	Emisioen hasiera	Kanala	Hizkuntza	Jabegoa
Euskal Autonomia Erkidegoa	1982	ETB1	Euskara	Publikoa
	1986	ETB2	Gaztelania	Publikoa
	2008	ETB3	Euskara	Publikoa
	2001	Canal Vasco	Nagusiki euskara	Publikoa
	2001	ETB Sat	Nagusiki gaztelania	Publikoa
Katalunia	1983	TV3	Katalana	Publikoa
	2001	Canal K3	Katalana	Publikoa
	2001	Canal 33	Katalana	Publikoa
	(1995) 1997	Canal Internacional	Katalana	Publikoa
	2005	Canal 300	Katalana	Publikoa
	2003	Canal 3/24	Katalana	Publikoa
	2001 (Lehen City TV; Kantar Mediak 2006tik aurrera kontabilizatua)	8 TV	Gaztelania eta Katalana	Pribatua
Galizia	1985	TVG	Galegoa	Publikoa
	2008	G2	Galegoa	Publikoa
	1997	GTV America	Galegoa	Publikoa
	1997	GTV Europa	Galegoa	Publikoa
Andaluzia	1989	Canal Sur	Gaztelania	Publikoa
	1998	Canal 2 Andalucía	Gaztelania	Publikoa
	1996	Andalucía Televisión	Gaztelania	Publikoa
Madril	1989	Telemadrid	Gaztelania	Publikoa
	2001	LaOtra	Gaztelania	Publikoa
	2001	Telemadrid SAT	Gaztelania	Publikoa
	2000 (Kantar Mediak 2006tik aurrera kontabilizatua)	Onda 6 TV	Gaztelania	Pribatua
Valentzia	1989 (2013ko azaroan itxia)	Canal 9	Katalana	Publikoa
	1997 (2013ko azaroan itxia)	Punt 2	Katalana	Publikoa
	2005 (2013ko azaroan itxia)	Televisión Valenciana Internacional	Katalana	Publikoa
Kanariar Irlak	2000	tvCanaria	Gaztelania	Publikoa
	2006	tvCanaria Dos (Gaztelania	Publikoa
	2009	tvCanaria Internacional	Gaztelania	Publikoa
Gaztela-La Mancha	2001	CMT	Gaztelania	Publikoa
Asturias	2005	TPA	Gaztelania	Publikoa
	2005	TPA Satélite	Gaztelania	Publikoa
Aragoi	2005	ATV	Gaztelania	Publikoa
Balear Irlak	2005	IB3	Katalana	Publikoa
Murtzia	2005	7 Región de Murcia	Gaztelania	Publikoa

2. Taula. Espainiako estatuko mailako kanal analogikoak: publikoak eta pribatuak.

Kanala (jabegoa)	Emisioen hasiera
TVE 1 (Publikoa)	1956
TVE 2 (Publikoa)	1965
Antena 3 (Pribatua)	1990
Telecinco (Pribatua)	1990
Canal + (Pribatua)	1990-2006 (Kantar Mediak 2006 arte kontabilizatua)
Cuatro (Pribatua)	2005
La Sexta (Pribatua)	2006

2. Eskaintza sailkatuz

Ikusi dugunez, etengabeko aldaketa zurrunbiloan murgilduta ageri zaigu telebista-gintza. Jaio zenetik eta, bereziki, birrarauketa legalaren eta garapen teknologikoaren ondorioz kanal kopurua biderkatzeko aukera zabaldu zenetik eta horien baitan kanal pribatuak jaio zirenetik guttiz bestelakoa da medioaren beraren erreferentzia markoa.

Aldaketa hauen zabalera eta sakontasuna neurtzerakoan, beste batzuen artean, programazioa eta programen izaera, xede-taldea, formatua eta edukia kontuan hartu izan dira. Generoen araberako sailkapena eginez posible izan da nolabait garai ala toki desberdinetako programazioak konparatzea eta bilakaeraren nondik norakoak zehaztea.

Genero sailkapen bakarra eta homologatua diseinatzea ez dirudi baina gauza erraza denik. Besteak beste aztergaia bera aldakorra delako eta programen edukia eta osagarri formalak etengabeko moldaketan sartuta daudelako eta generoen estilemak desagertu direlako neurri handi batean.

Garbi dagoena da telebista kanal desberdinen eskaintzaren azterketa egiterakoan ezinezkoa dela programaz programako maila mikrorra jeitea eta beharrezkoa dela edukia eta formatuaren konbinaketa eginez multzo handiago batzuk sortzea, generoena. Kasuistika zehatzetan erortzeko arriskua ekidituz modu honetara eta urtez urteko bilakaera ikusi ahal izateko aukera bakarra.

Genero sailkapen saiakera ugarietatik lau dira gaur egun entzutetsuenak: Escort, Euromonitor, Médiamétrie eta Kantar Media.

EBU-UERek diseinatutako *European System of Classification of Radio and TV Programmes-ESCORT* da agian sendoena. Programa zein programazio-taula osoen azterketa egiterakoan helburua, formatua, edukia, xede-taldea, jatorria eta hitzkuntza dira aztertzen dituen elementuak (EBU-UER, 2001).

Euromonitorrenak dauzkan abantailen artean daude Europako zein Estatu Batuetako eskaintza aztertzerakoan itzal handiko taldea dagoela atzetik eta generoen ikuspegi makroa eta mikroa egiten dituela aldi berean.

Médiamétrie eta Kantar Media (2010arte TNS) dira bestalde audimetria erabiliz Espainiako zein Frantziako estatuetako telebista audientziaren azterketa burutzen dutenak. Beraiek dira telebistek eskainitako edukien eta erdietsitako audientzien arteko lotura egiten dutenak, laurogehigarren hamarkadatik aurrera. Medioaren beraren bilakaera eta edukietan bizi izan dituen aldaketak aztertzeko ikuspegi ezin hobea eskaintzen dute.

Hamairu dira Kantar Mediak kontuan hartzen dituen generoak eta hauen baitan beste hainbat azpigenero (3. Taula).

3. Taula. Kantar Mediaren genero eta azpigeneroen sailkapena.

GENEROAK	AZPIGENEROAK
ERLIJIOZKOAK	-Elizkizunak -Gertakizunak -Erljio-saioak
KULTURA / HEZITZAILEAK	-Hezitzaileak -Hitzaldiak -Dokumentalak -Bestelakoak
INFORMAZIOA	-Albistegi orokorrak -Albistegi berezituak -Atzerriko albistegiak -Gertakizun berezietako albistegiak -Erreportajeak -Iritzia -Huteskundetakoak -Komunikatu ofizialak
MISZELANEA (SASKI-NASKIA)	-Magazinak -Umorea -Bariatateak -Prensa-arrosa -Zirkua -Kabalgatak/Ihauteriak/Astrologia
INFOSHOWAK	-Talk show -Debate show -Reality show
LEHIAKETAK	-Espektakulo eta guzti -Espektakulo gabekoa
KIROLAK	-Zuzeneko erretransmisioak -Diferituko erretransmisioak -Kirol-saioak -Laburpenak -Erretransmisioen aurrekoak/atzekoak
ZEZENKETAK	-Zuzeneko zein diferituko erretransmisioak -Erretransmisioen aurrekoak/atzekoak -Laburpenak -Albistegiak
MUSIKA	-Musika-saioak -Kontzertuak/Emankizunak -Bideo-klipak
FIKZIOA	-Metraje laburrekoak -TV movieak/Telefilmak -Antzerkia -Jarraikortasun argumentaleko telesailak -Jarraikortasunik gabeko telesailak -Telenobelak -Sit-comak -Formatu handiko telesailak -Marrazki bizidunak -Miniserieak -Bestelakoak
SALMENTA-SAIOAK	-Tele-dendak -Salmenta eta demoak -Gida komertzialak
KODIFIKATZEKE	
BESTELAKOAK	

3. Generoen araberako eskaintzaren azterketa

Kantar Mediak bere zereginetarako kontuan hartzen dituen 24 kanaletatik 6k Estatu mailan emititzen dute, eta horietatik bi publikoak dira (TVE1 eta TVE2) eta 4 pribatuak: Telecinco, Antena 3, Cuatro (Canal +en oinordekotzat hartuko duguna) eta La Sexta. Aipatutako kanaletatik 16 autonomiko publikoak dira eta bi aldiz 8TV eta Onda 6TV Bartzelonako eta Madrilgo kanal autonomiko pribatuak, hain zuzen ere.

Kanal multzo handi horren eskaintza 16 urteko denbora tarte zabalean ikertzeak Espainiako estatuko lurreko telebistagintza analogikoaren emisioaren osagaiak zentzuz izan diren ikusten aukera ezin hobea ematen digu.

Kantar Mediak bere urtekarietan publikatzen dituen telebista emisioen generokako kopuruetan oinarritu gara, artikulu honetarako sistema analogikoaren azken 16 urteetara mugatuz, digitalizaziora salto egin aurreko garaia sakonean aztertu ahal izateko. Horretarako, ikuspegi horizontala (kanal bakoitzaren eskaintzan generoen araberako bilakaera aztertuz, urtez urte) eta bertikala (batz bestea, generoen pisua handituz ala txikituz ote doan) erabili ditugu.

Gure azterketa argiagoa izan dadin, sarritan kanal publikoen datuak pilatu egin ditugu (izan emisio-eremu estatalekoak zein autonomikoak) eta batz besteko kopuruak atera ditugu gero izaera pribatua daukaten kanalekin alderatu ahal izateko. Gainera, amaiera aldera, kanal bat baino gehiago dituzten telebista autonomikoen berezitasunak jorratu ditugu.

Kasu guztietan abiapuntu bera izan dugu, digitalizazioak ekarriko zituen aldaketak behar bezala interpretatu ahal izateko, garai analogikoko telebistagintzaren ikuspegi zabala beharrezkoa da eta horretarako generoen azterketa oso tresna baliagarria da. Gainera, aldaketa uneetan soma daitezke garbien desagertzeaz dagoen ereduaren nortasuna eta etorriko denaren arteko kontrastea. Baina beti ere jakinik, garai analogikoaren azken urteetan komertzialtasuna sendotu, kanal publiko eta pribatuen arteko desberdintasunak desagertu eta epe laburreko taktika jokoetan sartuak zirela kanal desberdinak audientza eskuratu guran.

Has gaitezen beraz, 1995-2010 bitartekoan Espainiako estatuko telebistagintzaren eskaintzaren oinarriak zeintzuk ziren azaltzera.


Lehen begi kolpe batez ageri den panoramak erakusten du genero gutxi batzuen bidez hezurmamitzen dela eskaintza eta nahiz eta urteen poderioz genero hauen pisua aldatuz joan den, nagusitasuna gutxi batzuen esku mantentzen dela, behin eta berriro.

Hala nola, 16 urteko epe honetan, egun osoko emisio-ordu guztiak zenbatuta, Fikzioak bereganatzen du denboraren ia herena (%31,8) eta horri gehitzen badiogu Miszelanea (%19,3) betea dugu eguneko ordu guztien erdia (Fikzioak nazioarte mailan eskuratzen duen lekuaz sakontzeko, ikus Vilches, 2010; Evans, 2011; eta Simelio, Ortega eta Medina, 2013). Genero nagusien multzo horretan kokatu behar ditugu baita ere Informazioa (%16,5) eta, azkenik, Kultura (%12,7). Lau hauekin bakarrik dagoeneko zenbatua dugu emisio-ordu guztien %80,4a.

Lehengaien zerrenda murriztuz honetatik kanpo gelditzen dira pisu aldetik garrantzi gutxiago daukaten Kirolak (%7) eta are eta txikiagoa Lehiaketak (%3,8), Musikalak (3,3%), *Infoshowa* (%2,5), Salmenta-saioak (%1,6), Erlizjiozkoak (%0,4), Zentzenketak (%0,4) eta Bestelakoak eta Kodifikatu gabeak (azken biak batuz, %0,5).

Beraz, gutxi batzuk baino ez dira garai analogikoaren azken hamarkada pasatxoeko eskaintza osatu duten generoak.


1. grafika. Generoen batz besteko pisua, Estatu espainiarra, 1995-2010.



Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Hala ere, eskaintzaren azterketa egiten hasi garenean esan dugun bezalaxe, generoen pisua gorabeheratsua izaten da denboran zehar eta, horrezaz gain, zenbatekoetan alde handia dago kanal publikoen eta pribatuen artean.

2. grafika. Generoen bilakaera, Estatu espainiarra, 1995-2010.



Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Generoen pisuaren bilakaerari dagokionez (ikus 2. Grafika; genero bakoitzak erakusten du urtez urteko gora behera), nabarmena da, Fikzioak behera egin duela hamasei urte hauetan eta ia-ia proportzio berean Miszelaneak gora. Beti mantendu izan dena da bien artean, bereganatzen dutela emisio-ordu kopuruaren erdia. Informazioak eta Kulturak goranzko bilakaera izan dute eta, aldiz, txikitzekoa Kirolak. Gainontzeko generoak, bere apaltasunean, antzerako portzentajeetan ageri dira urtez urte, Lehiaketaren salbuespenarekin, azken hau puztu egin baita azken urteotan.

Bestetik, eta esan dugunaren haritik tiraka, kanalaren jabetza eta egiten duen generoen eskaintza oso erlazionatuta daude, horrelakoxea zen lehen kanal pribatuak sortu zirenean eta hala da urte batzuk beranduxeago, 2005aren bueltan, Cuatrorekin eta La Sextarekin.

Kanal publiko eta pribatuen arteko desberdintasunei buruzkoak dira bereziki ondoko pasarteak.

3.1. Estatu mailako TB publikoei zein kanal autonomikoen arteko antzekotasunak


Telebistagintza publikoaren azterketa egiterakoan hainbat berezitasun hartu behar dira kontuan. Batetik emisio-eremu oso desberdinekoak direla, Estatu mailakoak batzuk eta autonomikoak besteak, gainera lauk gaztelera ez den beste hizkuntza batean aritzen direla. Azken hauek, bestetik, jatorri eta ingurune sozio-politiko desberdinetan kokatzen direla. Ahaztu gabe, gainera, ez direla denak aldi berean jaio eta poliki-poliki kanal autonomikoak gehituz joan direla, gaur egun 16ak osatu arte. Horrezaz gain, eta azkenik, kasu gehienetan kanal bat baino gehiago aireratzen duela telebista erakunde berak (TVE1 eta 2, ETB1 eta 2, Canal Sur eta CSA edo Canal 9 eta Punt 2, esaterako). Aurrerago ikusiko dugunez, bi kanal edukitzeak nolabaiteko espezializaziora eramaten ditu zeinaren arabera genero batzuk pisu gehiago duten kanal batean eta bigarreanean desberdinak diren beste batzuk.

Baina, 18 kanal hauek guztiek (Estatu mailako biak gehi 16 autonomikoak) elementu bateragarri asko dituzte eta nolabaiteko antzekotasuna erakusten dute generoen garrantziari dagokionez.

Kopuru orokorrak begiratuta 1995-2010 tartean, Fikzioa (batz bestea %29,5), Miszelanea (%20,6), Informazioa (%16,6), Kultura (%14,4) eta Kirolak (%7,3) dira genero oparoenak, eta ez dira desberdintasun handiegirik sumatzen Estatu osorako ala maila autonomikoan emititzen duten kanalen artean. Beste era batera esanda, kanal publikoak izateak ematen die nolabaiteko kidekotasuna eskaintza osatzerakoan.

Hori bai, telebistagintza analogikoaren 16 urte hauetan, generoen pisua ez da berdintsu mantendu kanal publiko hauetan. Esaterako, Fikzioak beherako joera erakutsi du, azken bosturtekoan mantendu bada ere. Miszelaneak jokatzen duenez nolabaiteko osagarri lana, Fikzioak lagatzen duen tartea berak okupatzen duela dirudi, hirugarren grafikari ikusten denez. Informazioak eta Kulturak gorako bilakaera izan du urtez urte. Eta, azkenik, Kirolak beherakoa. Gainontzeko generoen presentzia hutsaren hurrengoa da kanal publikoen batz bestekoan.

3. grafika. Generoen bilakaera, kanal publikoak, 1995-2010.




Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

3.2. Kanal publikoen eta pribatuen arteko alde nabarmenak

Lehenago azpimarratu dugunez, telebistagintzaren, ekosisteman kanal pribatuen eta publikoen arteko elkarreraginak sumatzen dira. Bereziki, ikuspegi komertziala eta beraz audientzien lehia buru-belarri sartuta daudenez (Antena 3, Telecinco, Cuatro eta La Sexta) kanal publikoengan eragiten duten espektakularizaziorako joera dela medio. Hala ere, eta datuek halaxe erakusten dute, desberdintasun handiak daude kanal publikoen eta pribatuen artean (ikus 4. grafika).

4. grafika. Generoen pisua, kanal publikoak vs pribatuak, 1995-2010 batz bestekoa.




Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Fikzioa, Informazioa, Kultura eta Kirolak dira eskaintzaren desberdintasunak mahai gaineratzen dituzten generoak (Miszelanean ematen den itxura bateko parekotasunean sakonduko dugu aurrerago). Audientzia kopururik handiena bereganatzea helburu duten kanalen kasuan entretenimendua (Fikzioa %39,2 eta Miszelanea %19,5, eta maila apalagoan Lehiaketak, Musika eta *Infoshowak*, bakoitzak, %4,5) da armarik garrantzisuena.

Baina, genero hauen pisua ez da beti maila berekoa izan eta erreferentzia gisa erabiltzen ari garen hamasei urteotan gauzak asko aldatu dira. Esaterako Fikzioak nabarmen egin du behera eta, ia proportzio berean, indartu da Miszelanea. Bosgarren grafikan ikus daitekeenez, 1995ean Fikzioak bereganatu zuen kanal pribatuaren eskaintzaren %61,4 eta, aldiz, 2010ean emisio denboraren %24,4a baino ez zuen lortu.

5.grafika. Generoen bilakaera, kanal pribatuak, 1995-2010.



Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Esan dugun modura, Miszelaneak, bere baitan programa mota ugari eta oso desberdinak hartzen duen generoak (txutxumutxuak, magazinak, umorea, jaietako erretransmisioakÉ), gorako bilakaera izan du aztergai daukagun denbora tarte honetako urte gehienetan. Maila baxuena 1995ean erakutsi zuen, %7,1arekin, eta gorena, aldiz, 2005ean, %27,5arekin.

Informazioaren kasuan, eta ia-ia bakarrik eguneroko albistegien iraupena luzatzearen eskutik, emisio-denboraren %10etik %15era hurbildu da, pausoz pauso.

Lehiaketak dira, bestetik, espektakularizazioaren eta entretenimenduaren beste ikurretako bat. Espainiako estatuko kanal pribatuaren kasuan, Lehiaketak pasa dira emisio-orduen %1,3a izatetik 1997an, 21,1era 2009an. Programa horietariko askok audientzia fidelizatze asmoarekin eguneroko maiztasuna hartzen dute eta *prime-*

timearen eta *day-timearen* sarreretan kokatzen dira, jendea erakarri eta gero etorriko diren bloke nagusi horietara audientzi-fluxua eramateko.


Baina, kanal pribatuetan nagusitzen diren generoen beste muturrean kokatzen dira, oso denbora tarte txikia eskuratzen dutenak. Alegia, kanal komertzialen genero eskaintza oso mugatuaren bazterretan aurkitu daitezkeen Kirolak, Kultura, *Infoshowa* (goranzko bidean beti ere), Musika, *Zezenketak* eta *Erliziozkoak*.

3.3. Generoen bilakaera alderatuz kanal publikoetan eta pribatuetan

Lehen ere azpimarratu dugunez, Estatu espainiarrean Fikzioa da zalantzarik gabe denbora gehien eskuratzen duen telebista generoa. Metraje luzekoak, telenobelak, *telemovieak*, *sitcomak* eta serieak dira gaur egungo telebistaren osagarri ezagunak. Bataz beste, emisio-orduen %31,8a okupatzen dute, 1995-2010 urte bitartean. Hala ere, kanal pribatuen eta publikoen artean sekulako desberdintasuna dago eta urtez urteko alderaketak irudi oso interesgarria erakusten digu: Fikzioa dela pisu gehien galdu duen generoa kanal pribatuetan (seguruenik kanal tematikoak sortu izanagatik) eta bere horretan mantendu dela publikoetan.

Ondoko grafikan (6. grafika) ikus daitekeenez, 1995etik hona, maldan behera etorri da Fikzioa Telecincon eta Antena 3n, bataz beste, 37 puntu galduz. Bilakaera hori mugatuagoa Cuatroren eta La Sextaren kasuan beranduago jaio zirelako.

6. grafika. Fikzioa, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.



Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.


Aitzitik, kanal publikoetan beherako joera oso apala izan da eta punturik gorena 1996an lortu bazuen ere %35,1arekin, baxuena, 2005ean, %26tik behera jeitsi barik.

Miszelanea bestalde oso genero esanguratsua da. Behin baino gehiagotan aipatu dugun legez, saski-naski bat delako, eta bere posizio emergentea magazinak, txutxumutxuak eta umorea daukaten programen gorakadan oinarritzen delako.

Miszelanearen garapenean baina oso egoera interesgarria ikus daiteke. Hasieran kanal publikoetan pribatuetan baino leku gehiago eskuratzen zuen 90eko hamarkadan aldiz 2000tik aintzinerara parra egin eta 2005etik hona kanal publikoetan baino denbora-tarte zabalagoa bereganatzen joan da. Ikuskizunera jauzia egin duen genero honetan bereziki aipagarriak dira txutxumutxuetara emanak diren magazinak, audientzia kopuru handiak eskuratzen dituztelako, fidelizazio-tresna erabiliak direlako eta, beti ere, daukaten iraupen luzea kontuan izanik ere ekoizteko merkeak direlako.

Ondoko 7. grafikak erakusten du zelakoa izan den Miszelanearen bilakaera azken hamasei urteotan, kanal publikoetan eta pribatuetan.

7. grafika. Miszelanea, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.



Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.


Ezin dugu ahaztu, kanal pribatuei dagokionez, Fizkioa eta Miszelanea oso erlazionatuta daudela eta lehenak hain nabarmen behera egin duen proportzio berean putzuta dela bigarrena. Bi horien artean betetzen da emisio-orduen erdia.

Osagarritasun hori kanal publikoetan ematen bada ere, azken hauek garrantzi gehiago eman diote Informazioari eta Kulturari, berehalaxe azalduko dugun modura.

Informazioari dagokionez, kanal publikoen zimentarrietako bat izan da hasiera hasieratik. Bataz beste, 1995-2010 urte tartean, %17,6a eskuratu duen moduan kanal komertzialen kasuan denboraren %12,9a lortu du. Telebista publikoen joera gainera goranzkoa izan da ia-ia urte gehienetan eta 2010ean %24ra iritsi da, seguruenik albistegi kopurua handitu izanagatik baino, formatu luzeagoko saioak direlako.

Kanal pribatuetan, 2010ean, itzalaldi analogikoaren urtean, hain zuzen ere, %16,2an kokatzen da emisio-orduen portzentajea. Lehenago ere aipatu dugunaren ildotik, kanal pribatuetan ere, Informazioaren gorakada eguneroko albistegien iraupena luzatzean gauzatzen da eta ez horrenbeste erreportajeak, albistegi berezituak ala iritziak eta eztabaidetan oinarritzen diren azpi-generoak ugaritzean.

8. grafika. Informazioa, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.




Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Kulturak goranzko joera apala duen arren urteen poderioz, genero gisa oso agerpen maila desberdina du kanal publikoetan ala komertzialetan. Ondoren datorren 9. grafikan ikus daitekeenez Kulturak TVEko eskaintzan zein kanal autonomikoetakoan kontuan hartzeko modukoa da eta aldiz hutsaren hurrengo pribatuetan. Gainera, aipatzea merezi du genero honen baitan kokatzen dituela Kantar Mediak dokumentalak ala hezitzea helburua dutenak eta hauen artean kanal pribatuetan ugaritu izan diren sukaldaritza, brikolagea eta tankera horretako edukiak. Hala ere, kanal pribatuetan Kulturak ez du gainditzen batz bestea emisio-denboraren %4,5a, 1995-2010an.

Bestetik, denbora tarte berean 18 kanal publikoek emisio-orduaren %15,2a bereganatu duen generoa da. Ezin da esan kopuru hori asko aldatzen denik, urtea joan eta urtea etorri, baina, zalantzarik gabe, kanal publikoen generoen partiketa egiten denean kontuan hartua izaten da.


9. grafika. Kulturalak, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.



Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Kirolek, Kulturari gertatzen zaionaren kontrara, husteko bidea hartu dute, poliki poliki. Seguruenik nagusi diren kirol (futbola bereziki baina baita saski-baloia, tenisa, kotxe lasterketak eta txirrindularitza ere) erretransmisioen eskubideak zaildu eta garestitu direlako eta, nola ez, ekoizpen oso zailak direlako. Kanal pribatuetan nabaritu da gero eta denbora gutxiago eskaintzearena eta 2010ean esaterako, emision-denboraren %2,9an kokatzen da. Aldiz, genero nagusietakoa ez izan arren ezta kanal publikoetan ere, garrantzi galtzea ez da hain nabarmena izan, esandako azken urte horretan %6,7koa zen dedikazioa kanal publikoetan.


10. grafika. Kirolak, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.



Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Lehiaketek lortzen duten lekua dela-eta, esan daiteke telebista pribatuek azken denboraldian bereganatu duten generoa dela (galdera-erantzun formatu serializatuaren eta baita *gameshow* delako norgehiagoka espektakularren eskutik). Orohar beti eskuratu izan du tarte txikia baina, bereziki Cuatro eta La Sexta jaio ziren urtetik aurrera, kanal pribatuek biderkatu egin dute Lehiaketei eskaintako denbora. Hala nola, 2009an goia jo zuen eta %21,1era heldu zen. Kopuru horiek askozaz ere mugatua goak dira kanal publikoetan eta azken hauetan ez da pasatzen ehuneko 2tik edo 3tik.


11. grafika. Lehiaketak, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.



Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Infoshowa bestalde, definizio arazoak dituen genero bat da. Ikuskizuna edukietan eta magazina formatu nagusi bilakatu den telebista eremuan, *show* marka duten gairontzeko programek sailkatzeko zailtasunak dituzte egungo programazio-tauletan. Beste erabatera esanda, *talk show* eta debate *show*ak asko gutxitu dira egungo parriletan. Salbuespen bakarra da *reality show*ena (Gran Hermano, Acorralados, e.a.) eta horiek aspaldi honetan ia bakarrik kanal pribatuetan ageri dira. Hori dela eta, 2000tik aurrera desagertzeaz daude *Infoshow* generoko saioak kanal publikoetatik eta, aitzitik, puztu egin dute beraien pisua pribatuetan. Inoiz ez dute %10aren muga gainditu baina badira urte batzuk bederatzia eskuratzen dutela.

12. grafika. Infoshowak, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.




Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Azkenik, eta beti ere Estatu espainiarreko telebista kanal publikoen eta pribatuen arteko desberdintasunei erreparatzen garen honetan, Salmenta-saioak aipatuko ditugu (ikus 13. grafika).

1995-2010 urte tartean, spot arruntez haratagoko publizitate mota honek bere lekua irabazi du kanal pribatuen artean, publikoetatik ia-ia desagertu den neurri berean. Bataz beste telebista komertzialetan %4,5a suposatzen badu ere, izan ditu urteak zeinetan ehuneko zazpiko muga ukitu duen. Genero hau goizaldeko ordu txikiak programazio-taula betetzetik eta produktu magiko deiturikoak iragartzetik bizi da.

Beraz, esandakoaren ondorioz, kanalen jabetzak asko markatzen du telebistek eskaintzen dituzten generoen banaketa. Oinarrian lau generoetan oinarritzen bada ere kanal pribatuen zein publikoen programazioa, azken urteetako joerak erakusten du helburu komertziala dutenen artean bereziki Fikzioak beheara egin duela eta aldiz gora Miszelaneak eta Lehiaketak. Kanal publikoen artean Informazioak eta Kulturak eskuratzen dute pribatuetan baino garrantzi gehiago.

13. grafika. Salmenta-saioak, publikoak vs pribatuak, 1995-2010.


Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

3.4. Kate bereko kanalen berezitasunak

Lehenago esan dugun bezalaxe, Estatu zein autonomia desberdinen mailako telebista publiko askok kanal analogiko bat baino gehiago eduki izan dute. Ente bereko eskaintza bikoiztasun horrek ekarri du kanal desberdinen arteko espezializatu behar bat. (Arana, 1998). Bereizketa hori gertatzen den ala ez eta nolakoa den aztertuko dugu ondoko lerroetan.

Televisin Espoal aren bi kanalei dagokionez, ageri agerian geratzen da bereizketara jo dutela. Lehen kanalak Informazioa (%32,2) eta Fikzioa (%31,7) aukeratu ditu bere izaera azpimarratzeko tresna gisa eta aldiz apalagoa da Kulturari eta Kirolari eskaintako denbora. Azken bi hauek dira, preseski, TVE2ren indargunetako batzuk. Bigarren kanalean Kulturak %24 eskuratzen du eta Kirolak ehuneko 16,9a. Emisio-orduen %20,6a bestalde Fikzioak betetzen du.

Kanal publiko bietan proportzio beretsuan ageri dira Miszelanea generoko programak.


14. grafika. TVE1en eta TVE2ren genero eskaintzaren alderaketa, 1995-2010 batz bestekoa.

Iturria: Egileak egina Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

Euskal Telebistaren kasuan, bereizketa Fikzioan eta Kiroletan oinarritzen da. Euskarazko kanalaren kasuan Kulturaren (%23,2) eta Miszelanean (%22,7) ETB2 baino indartsuagoa badago ere, Kirolak markatzen du aldea (%14,8a ETB1en eta %1,1a bakarrik bigarren kanalean).

Gaztelera-zkoak Fikziotik betetzen du emisio-orduen ehuneko 43,6, 1995-2010 batz bestekoa. Antzera ari dira Informazioan.

15. grafika. ETB1en eta ETB2ren genero eskaintzaren alderaketa, 1995-2010 batz bestekoa.



Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.


Kataluniako telebista autonomikoa aipatuko dugu azkenik, beti ere, bi kanalen arteko nolabaiteko errol-jokoa nola gauzatzen den aztertzen ari garen honetan (konparaketa hau egiterakoan nagusi diren TV3 eta K3-33 erabiliko ditugu, beste kanalak kontuan hartu barik).

TV3k Fikzioarekin (%37,9) eta Informazioarekin (%26,7) betetzen du bere emisio-orduen ia bi heren. Aldiz, K3-33 kanala espezialdu egin da Kulturaren (31,3) eta maila apalagoan Fikzioan (%13,5), Kiroletan (%13) eta Musikan (%10,4). Azken bi hauen bidez sekulako aldea ateratzen dio TV3i.

Beraz, garbi dagoena da, Fikzioa, Kultura eta Kirolak direla neurri handi batean bi kanal dauzkaten telebistek erabiltzen dituzten osagarriak programazio bakoitzaren nortasuna eraikitzeke orduan. Telebista merkatu gero eta saturatuagoan eta, bereziki, esparru autonomikoan, non kanal publikoen programazio-taula berezitu nahi den, garrantzitsua da xede-talde eta eskaintza propioak aireratzea.

Gainera, zalantzarik ez dago, aro digitalean ere oso kontuan hartzekoa dela kanalen arteko izaera azpimarratzea merkatu gero eta oparagoan edota 2011eko azken erdian eman ziren Telecinco eta Cuatro ala Antena 3 eta La Sexta kanalen atzetik dauden enpresen arteko xurgatzeak. Horrelako kasuetan, kanal bakoitzak birdefinitu beharra du bere soslai eta egoera berrira egokitu produktu erakargarri eta berezitua plazaratuz.

16. grafika. TV3n eta K3-33en genero eskaintzaren alderaketa, 1995-2010 batuz bestekoa.



Iturria: Egileak egin Kantar Mediaren datuetan oinarrituta.

4. Ondorioak

90. hamarkadaren erdialderako, Estatu espainiarrean telebista sistema publikoa eta pribatua elkarrekin bizitzera ohitzen hasiak ziren. Lehen kanal pribatuen etorrerak sortutako lurrikara barneratzen ari ziren telebista publikoak. Jakitun egoera aldaketak ez zuela atzera bueltarik eta telebista beraren izaera, eskaintza eta erabilera sozialak eraldatzen ari zirela, nahi ala ez.

Telebista bakoitzak bere oinarriak definitu beharra zuen oparotasun hartan nor bere lekua aurkitu ahal izateko. Kanal kopuruen handitzeak ez zuen etenik eta lurreko telebistari satellite eta kable bidezkoak gehitu zitzaizkion urte gutxiko epean.

2010ean transmisio sistema analogikoa itxi zenean, emisio eremu, jabetza, transmisio sistema, programazio mota eta eskaintza desberdineko kanal asko zeuden Espainiako estatuko merkatuan lanean.

Digitalizazioak irekitako eskenategi berriaren atarian gaude oraindik ere baina ikus-entzunezkoen eremuan inoiz ezagutu den prozesu sakonena dela ez dago zalantzarik.

Iraultza honi neurriak hartu ahal izateko, aro analogikoaren balantzea eta kuantifikazioa egin beharra dagoela uste dugu, baita programazioarena ere.

Kantar Mediak kaleratzen dituen datuetan sakonduz esan daiteke, Espainiako estatuko telebistagintzaren eskaintza oso mugatua dela programa generoei dagokionez. Hiru/lau zutoin baino ez ditu Fikzioa, Miszelanea, Informazioa eta Kultura. Horien bidez osatzen da egun osoko emisioa.

Hasierako hurbilketa horretan kanal publikoen eta pribatuen eskaintza berezitzuz, agerikoa da kanal publiko estatalen eta autonomikoen eskaintza nahiko antzerakoa dela, azken hamasei urteon bataz bestekoa eginez. Beti ere kontuan hartuta telebista kate askok kanal bat baino gehiago emititzen duela eta nolabaiteko rol banaketa bat aplikatzen duela eskaintzaren osakera egiterakoan. Edozelan ere, Fikzioa, Miszelanea, Informazioa eta Kultura nagusi dira jabego publikoko telebisten artean. Kirolak ere bere lekua dauka.

Kanal pribatuen nortasuna definitzerakoan lau dira genero aipagarrienak: Fikzioa, Miszelanea, Informazioa eta Lehiaketak. Bereziki baxua da Kirolak, Kultura eta Musika genero gisa duten programena.

Genero desberdinek izan duten bilakaerari erreparatuz, 1995-2010 urteetan aldaketa handiak egon direla nabarmentzen da, seguruenik kanal pribatuen indarrari, ekoizpenaren kostuei, gustu eta modei, audientzia lortu gurari eta kanpoko merkaturaren eraginari erantzunez.

Eboluzio horretan begi bistakoa da Fikzioak behera egin duela nabarmen kanal pribatuetan eta paretzu mantendu publikoetan.

Miszelanean, lehen kanal publikoetan oso presente zegoen arren azken 5 urteotan ahuldu egin da bere garrantzia. Kontrakoa da kanal pribatuen egoera. Gaur egun, Fikzioarekin programazio-taularen osagai nagusietako bat da. Miszelanea da hibridazioa ondoen erakusten duen generoa eta formatu eta programa mota berriak hobeki metabolizatzen jakin duena.

Beste alde batetik, albistegiak dira Informazioaren oinarri. Kanal pribatuek luzatu egin dituzte eguneroko albistegiaren iraupenak eta horrekin portzentajeak gora egin du. Kanal publikoen kasuan, goranzko bidea eduki du ia-ia beti eta gaur egun emanaldien laurden bat suposatzen du.

Kanalen jabetzak eragiten duen desberdintasunen artean dago Kultura generoko programazioa. Izan ere, mantendu egiten da %17aren bueltan kanal publikoetan eta oso maila apalean telebista pribatuetan. Osagarri hutsa dela dirudi azken hauentzat.

Kirolak beherantza doaz, poliki-poliki, Kulturaren kontrara. Eta hemen ere alde handia dago kanal publikoen eta pribatuen artean.

Lehiaketak eta *Infoshows* ia-ia desagertu egin dira TVE eta kanal autonomikoetatik eta pribatuentzako genero garrantzitsuak bilakatu dira. Gorabeherak egoten diren arren urte batetik bestera, aipagarria da eguneroko maiztasuna duten Lehiaketak erabiltzen dituztela fidelizazioa lortzeko eta *access* puntuetan kokatuz, audientzia jariora indartu eta *prime-timera* ala *day-timera* garraiatzeko. *Infoshow* genero atalean, funtsean, *reality show* da gaur egun lekua duen bakarra, ez edo-zelakoa gainera.

Salmenta-saioena ia modu eskusiboan kanal pribatuetan ageri den generoa da. Gehien %7a lortu du hamasei urteko tarte honetan baina bataz beste 4,5eko maila eskuratzen du urtea joan eta urtea etorri.

Azkenik, eta egin dugun irakurketaren osagarri modura aipatu bi kanal dituzten kateen kasuan Fikzioa, Kirolak eta Kultura izaten direla elementu bereizgarriak. TVEren kasuan bezala Kataluniako eta Euskadiko kanal autonomikoena ikertuta ikusten da benetakoa ahaleginak egiten dituztela bereizketa hori gauzatzeko. Izan ere, telebistagintzaren merkatu gero eta saturatuagoan marka bereizgarriak eta aldi berean talde sinergiak oso garrantzitsuak dira.

Bukatzeko aipatuko dugu, telebista sistema mistoak, non kanal publikoak eta pribatuak aritu diren azken urte mordoxkan, erakusten duela kanal pribatuen eragina handia dela telebistagintzaren bilakaera orokorrean. Aro analogikoaren azken bolada luzean, audientzia lehiak epe laburreko lasterketan erabili ditu hainbat genero eta programa, ikuskizunerako joera nagusitu da eduki gehienetan eta ibilbide horretan ez da alde handirik egon kanal pribatuen eta publikoen artean.

Digitalizazioaren bidea eginez joango da eta ikusteke dago zein izango den telebista deitzen denaren etorkizuna. Baina, badirudi, komunikazio sistemaren baldintzak, garapen teknologikoak edo telebisten eskaintzak bezain besteko garrantzia izango duela erabiltzaileen jarrerak. Eta horretan gakoak izango dira sozialki nola barneratzen diren medioen inguruko berrikuntzak eta edukiek noraino asetzen dituzten erabiltzaileen desioak eta beharrak

Erreferentzia bibliografikoak

- ALVAREZ MONZONCILLO, José María (2011): “Las nuevas televisiones: personalización e individualización”. **In:** ALVAREZ MONZONCILLO, José María (koord.). *La televisión—netiquetada. Nuevas audiencias, nuevos negocios*. Madril: Ariel, 83-101 or.
- ARANA, Edorta (1998): “Telebista pribatuen eragina programazioaren bilakaeran”, **In:** *Zer*, 5 zbk., 317-336 or.
- ARANA, Edorta (2011): “Nuevos retos en programación”. **In:** FRANCES, Enric et al (koord.). *La calidad de los contenidos audiovisuales en la multidifusión digital*. Bartzelona: Editorial UOC, 199-212 or.
- ARANA, Edorta (2011): *Estrategias de programación—ntelevisiva*. Madril. Síntesis.
- ARANA, Edorta, AZPILLAGA, P. eta Narbaiza, B. (2007): *Panorama de la Televisión—nLocal en Euskal Herria (2003)*. Leioa: Ikus-entzunezko komunikazio eta Publizitate saila, UPV-EHU.
- BADILLO, Angel (2003): *La desregulación de latelevisión local en España: el caso de Castilla y León* (Doktorego tesia). Bellaterra: Departament de Comunicació Audiovisual i de Publicitat, Universitat Autònoma de Barcelona.
- CONTRERAS, José María eta PALACIO, M. (2001): *La programación—ntelevisiva*. Madril: Síntesis.
- EBU-UER (2001): “European System of Classification of Radio and TV Programmes—ESCORT” izeneko txostena. European Broadcasting Union/Union Européenne de Radio-Télévision. [http://www.ebu.ch/tech_info_escort.html], 2012ko urtarrilaren 10a.
- ECO, Humberto (1986): *Televisión: la transparencia perdida, la estrategia de la ilusión*. Bartzelona: Lumen.
- EVANS, Elizabeth (2011): *Transmedia Television: Audiences, New Media and Daily Life*. New York: Routledge.
- GECA (2001-2004): *El anuario de la televisión—n*. Madril: Geca.

- GUIMERÁ, Josep Àntoni (2007): *La televisi—local a Catalunya: gestaci—, naixement i transformacions (1976-2005)* (Doktorego tesia). Bellaterra: Departament de Periodisme, Universitat a Autònoma de Barcelona.
- INFOADEx (2011): Estudio Infoadex de la inversión publicitaria en España. [<http://www.infoadex.es/RESUMEN2011.pdf>], 2012ko urtarrilaren 10a.
- IPT NETWORK (2008-2012): *Television International Key Facts*. Köln: IPT Network.
- KANTAR MEDIA (1995-2010). *Anuario de Audiencias de Televisi—n* Madril: TNS/Kantar Media.
- PALACIO, Manuel (2001): *Historia de la televisi—n en España*. Bartzelona: Gedisa.
- PRADO, Emili *et al* (2009): “La televisi—n”. **In:** ZENBAITEN ARTEAN. *Informe de la comunicaci—a Catalunya*. Bartzelona: Incom-UAB. [http://incom.uab.cat/informe/e_content.asp?id_seccio=19], 2012ko urtarrilaren 10a.
- PRADO, Emili eta DELGADO, M. (2010): “La televisión generalista en la era digital. Tendencias internacionales de programación”. **In:** *Telos*, 89 zbk. [http://sociedadinformacion.fundacion.telefonica.com/DYC/TELOS/REVISTA/Dossier/DetalleArticuloTELOS_84TELOS_DOSSIER0/seccion=1266&idioma=es_ES&id=2010083009560001&activo=6.do], 2012ko urtarrilaren 10a.
- PRADO, Emili, HUERTAS, A. eta PERONA, J.J. (1992): “España: nuevos modelos de programación”. **In:** *Telos*, 31 zbk., 72-84 or.
- ROEL, Marta (2008): “Audiovisual Digitalization in Spain and Italy: from Neo-Television to Post-Television”. *Observatorio (OBS) Journal*, 4 zbk., 95-112 or.
- SIMELIO, Núria, ORTEGA, Marta eta MEDINA, Pilar (2013): “Análisis de la ficción iberoamericana de mayor audiencia en el mercado español”. **In:** *Zer*, 34 zbk., 229-249.
- TUBELLA, Inma, TABERNERO, C. eta DWYER, V. (2008): *Internet y televisi—n: la guerra de las pantallas*. Bartzelona: Editorial UOC, Ariel eta Generalitat de Catalunya.